

Espedientearen kodea: 2024GB170005

Espedientearen gaia: Agente Lehena postua betetzeko lehiaketa

Titularra: Oiartzungo Udala

DEKRETUA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko azaroaren 12an emandako erabakiaren bidez (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 238. zenbakia, 2024ko abenduaren 11koa), Udaltzaingoko agente lehena lanpostua merezimendu lehiaketa bidez hornitzeko oinarriak onartu zituen.

Oiartzungo Udalak parte hartzeko eskariak aurkezteko zegokion epea ireki zuen. Aipatu epea agorturik, seigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu behar da, baita hautaketa batzordeko kideak izendatu ere.

Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Lehena.- Ebazpen honen eranskinean agertzen den onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea, eta Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean (www.oiartzun.eus) argitaratzea.

Hornidura prozesuan parte hartzeko eskaera egin duten pertsonen artean baztertua izan denik ez badago ere, 10 egun balioduneko epea izango dute parte hartu nahi dutenak, onartutako zerrendan azaltzen ez diren kasuan, erreklamazioak aurkezteko. Behin-behineko zerrenda behin betikotzat hartuko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada 10 eguneko epean, ebazpen hau web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Erreklamaziorik balego, ebazpen berri baten bidez onartuko edo baztertuko lirateke, eta behin betiko zerrenda web orrian eta Udalaren iragarki-taulan argitaratuko da.

Bigarrena.- Hornidura prozesuaren balorazio batzordeko kideak izendatzea:

Batzordeburua:

-Xabier Garagarza Roteta, Oiartzungo Udaleko udaltzainburua (subofiziala), titularra, eta ordezkoa, Andoni Etxezarreta Sagastibeltza, udaleko arkitekto arduraduna.

Batzordekiak:

- Idoia Lazpita Bengoa, Oñatiko Udaleko Udaltzainburua titular gisa eta ordezkoa, Maria Jesus Otaegi Irureta, udaleko kontuhartzailea.
- Mikel Mirena Martiarena Ojea, Oiartzungo Udaleko agente lehena, eta ordezkoa, Rufino Jauregi Aizpurua, udaltzaingoko agentea.
- Xabi de la Mota Vazquez, udaleko idazkaria, eta ordezkoa, Ander Santesteban Urrate, udaleko Mendi eta Ingurumeneko teknikaria.
- Maribi Joaristi Olariaga, udaleko ABT-Letradua, eta ordezkoa, Javier Susperregi Intxaurrendieta, udaltzaingoko agentea.

Idazkaria:

-Oihane Mallagaray Revilla, AOT-giza baliabideetako arduraduna eta, Miren Joseba Ibarguren Aduriz, udaleko administraria.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



ERANSKINA

ONARTUTAKO HAUTAGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

ABIZENAK ETA IZENA	NA
ARANETA RAMOS, ASIER	***8702**
IBARGUREN NIETO, IGOR	***9318**
JAUNARENA LOPERENA, IRANTZU	***8132**
RUIZ AZORES, IÑAKI	***6930**

BAZTERTUTAKO HAUTAGAIEN ZERRENDA:

Ez dago bazterturik.



EKS | CSV: ESKU2ed183ba-adad-46b4-81a0-cc173237cbf2

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024GB170005-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)